

## **UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2018)**

### **III. MODALITATEA:**

### **Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin- behineko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 5ean onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

#### **UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2018)**

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Ikerketaren Kudeaketa Zuzendaritzak jasotako eskaerak aztertu ditu, ondoko alderdiak aintzat hartuz:

3. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea eskatzaileen aldetik.
4. Oinarrian xedaturiko baldintzen betetzea, tesi zuzendari izateko proposaturiko pertsonen aldetik.

**Eskaera behin-behinean onartu** zaien eskatzaileek ez dute izapiderik egin behar. **Ezin izango da eskaera osorik berriro aurkeztu, edo eskatu ez den dokumentaziorik aurkeztu.**

Eskaera **behin-behinean baztertu** zaien pertsonak akatsak zuzentzeko aukera izango dute **2018ko azaroaren 7tik azaroaren 20ra bitartean (biak barne)**. Zuzendu beharreko akatsak erabaki honekin batera publikatu den zerrendan zehaztuta daude. **Ezin izango da eskaera osorik berriro aurkeztu, edo eskatu ez den dokumentaziorik aurkeztu.**

Alegazioak UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan edo edozein posta bulegotan aurkez daitezke administrazio bidalketaren bidez, hau da, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuta Postetxeko langileek lehenengo orriari zigilua jar dezaten eta, behin hori eginda, posta ziurtatuaren bidez igorri hona:

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea**  
**Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)**  
**Errektoregoaren eraikina**  
**Sarriena auzoa, z/g**  
**48940 – Leioa (Bizkaia)**

**Posta elektronikoz bidalitako alegazioak ez dira inolaz ere baliozkotzat joko.**

Leioa, 2018ko azaroaren 6an.

**BEHIN-BEHINEAN BAZTERTUTAKO ESKAERAK ZUZENTZEKO JARRAIBIDEAK**

ZUZENKETA KODEA	ARRAZOIA	ZUZENKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK
3.1.a.i oinarria	<p>Ez da proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen, oinarri honek dinoen arabera</p> <p><b>"3.1.a.Honako baldintza hauetakoren bat bete:</b></p> <p><b>i. Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, 2015ko urtarrilaren 1etik aitzina lortuta. Salbuespenez, titulazioa lehenagoko data batean lortu izana izan ahalko da, proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen bada. IGBBk balioetsiko ditu baldintzok baldintza hau bete den edo ez ebazteko.</b></p>	<p>Dokumentuak aurkeztu PDF formatuan, CD, DVD edo pendrive batean sartuta. <u>Erregistroan aurkeztu behar da dena delako gailua.</u></p> <p><b>Aurkeztu beharreko agiria aurkezten ez bada eskaera baztertua izango da.</b></p>

## **I. eranskina**

### **Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Kodea	NAN	ESKARIA BERRIKUSTEAREN EMAITZA	ZUZENDU BEHARREKO ALDEAK
PIFBUR18/01	76088905Y	ONARTUA	
PIFBUR18/02	72535275Z	ONARTUA	
PIFBUR18/03	45786620Z	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA	3.1.a.i oinarria
PIFBUR18/04	080140200026	ONARTUA	
PIFBUR18/05	15CF20193	BEHIN BEHINEAN BAZTERTUA	3.1.a.i oinarria
PIFBUR18/06	45754529P	ONARTUA	
PIFBUR18/07	130317202074	ONARTUA	
PIFBUR18/08	77216351S	ONARTUA	
PIFBUR18/09	16098012J	ONARTUA	
PIFBUR18/10	LR0572661	ONARTUA	